Galarleiz mendi maratoia

Hiru modu mendiaz gozatzeko

Euskal Herrian egiten den mendi lasterketarik entzutetsuena jokatuko da igande honetan zortzi, uztailaren 22an: Galarleiz mendi maratoia edo Euskadiko mendi maratoia. Neurriak jakinak dira (42 km eta 195 m), maratoiarenak, eta urtero bezala, oinez, korrika edo mendiko bizikletan osatu ahalko da ibilbidea. Burgosko San Pelayo herrixkan abiatu eta, Ordunteko mendiak zeharkatu ondoren, Zallako Otxaran auzoan amaituko da proba. Iaz bezala, milatik gora lagunek parte hartuko dute.



Iazko probako irudiak.

Ramon Olasagasti

Ordunteko mendiak Burgos, Bizkaia eta Kantabria arteko muga edo harresi naturalak dira. Gailurreria horretan goititzen dira Zalama, Balgerri, Kolitza eta La Garbea, maratoi honetan igarotzen diren lau mendiak, hain zuzen. Hegoaldera, Mena harana, Burgosen; iparraldera, Karrantza aldea, Raneroko Haitzak, Pozalaguako haitzuloak... ibiltari eta korrikalariek ikusmira paregabea izaten dute lagun. Noski, ibiltariek lasterkariek baino hobea.

Ibilbidean, luzera bera baino gogorragoa desnibela izango da: 1.114 metro gorantz eta 1.693 metro beherantz. Lau kontrolgune izango dira, justu tontorretan: Zalama, Balgerri, Kolitza eta La Garbean. Bidean bi anoi puntu izango dira janariarekin eta sei edatekoarekin. Jatekoa eta edatekoa nahikoa izango bada ere, antolatzaileek indarrak ondo neurtzeko aholkatu dute.

Galarleiz mendi maratoian, kirol lehiatik kanpo, duela lau urte argazki lehiaketa ere jarri zuten martxan, paisaiaren edertasunak eta partaideen ahaleginak erretratu politak eskain zitzakeelakoan. Aurten ere egingo da argazki lehiaketa. Partaideek hiru argazki aurkeztu ahalko dituzte, 15 x 20 zentimetroko neurrian. Gutun-azal itxian eta egilearen datuak barruan zehaztuta, irailaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak, Herri Irratiaren Bilboko egoitzan.

jakingarriak

Neurriak: 42,195 kilometro. 1.114 metroko desnibela gorantz eta 1.693 metro beherantz. Sei anoi puntu daude ibilbidean zehar, horietatik lau edariekin dira eta bi edari eta jakiekin.

Izen emateak: Izen emateak hainbat kirol dendatan egin daitezke: Keb Sport (Gernika, Max Center, Bilbondo eta Bidarte), El Pedal (Laredo), Ibilki Kirolak (Bilbo), Marino Lejarreta (Bilbo), Matiko (Zalla), Ciclos Maestre (Bilbo), Bikila (Bilbo), La Bicicleta (Bilbo) eta Ciclos Sport (Gasteiz). Telefonoz ere egin daiteke izen ematea, 94-6391672 zenbakian. Han zehaztuko dizuete diru sarrera non egin.

Irteera: Goizeko 08:00etan irtengo dira oinezkoak; 09:30ean korrikalariak eta 11:00etan mendiko bizikletarekin lehiatuko direnak. Goizean goizetik autobusak jarriko dira helmugatik (Otxarandik) San Pelayoko irteera puntura joateko. Autobusean lekua izateko, izena emateko orrian jakinarazi behar da.

Errekorrak: Lasterkarien artean Fernando Zuluaga lemoarrarena da denborarik onena. 2.52:11. Nesken artean, berriz, Agnes Riera katalana izan da orain arteko azkarrena: 3.47:13. Mendiko bizikletarekin Igor Garatek iaz apurtu zuen errekorra: 2.13:32. Eta nesketan, Rakel Aberasturik 3.19:20 denborarekin du bizikletako errekorra.

Informazioa: Probari buruzko informazio zehatzagoa nahi duenak aski du 94-6391672 telefonora deitzea.

laburrean

BIDAIAK ✕ Bidaztiaren astea egingo dute Bermeon, gaurtik datorren ostirala arte

Gaur hasi eta hilaren 20a arte bidaztien astea izango da Bermeon, hainbat hitzaldi, proiekzio eta bestelakoekin; euskara hutsean izango da, gainera, astea, eta bereziki gazte jendeari zuzendua, oporrak nola prestatu erakuste aldera. Gaur bertan, Abando Bidaiak agentziako Mikel Urkizuk hainbat azalpen emango ditu gazteek bidaiatzeko dituzten erraztasunen inguruan: interraila, busabout, hegazkinak, ikasle txartelak... Asteartean, Fernando Odriozola kazetari eta bidaiariak Argentinatik Mexikoraino txirrinduz egindako bidaiaren proiekzioa eskainiko du. Asteazkenean, Josu Iztuetak Pangea egitasmoari buruzko proiekzioa emango du, eta ostegunean, Jose Ramon Agirre *Marron*-ek *Pirinioak, harmonia* emanaldia. Ikus-entzunezko guztiak arratsaldeko 19:30ean izango dira, Nestor Basterretxea aretoan. Astea osatzeko, astelehenetik ostiralera bidaztien lantegia izango da, Josu Iztueta eta Itxaso Aurrekoetxearekin. Bidaiak nola antolatu, nola merkatu zer eraman... erakutsiko dute



\$\$\$

MENDIA ✕ Vasco de Camping taldeak gazteentzako irteera gidatua antolatu du abuztuaren 1etik 3ra, Posets mendigunera

Donostiako Vasco de Camping mendi taldeak irteera gidatuen egutegia eratu du 18 urtetik 30era bitarteko gazteentzat, eta abuztuaren 1etik 3ra egingo dute bigarren txangoa, Posets mendigunera. Goimendiko gidari titulatuekin izango da txangoa, eta eguraldia lagun bada, Forqueta eta Tuca de es Corbets mendiak igoko dira. Informazio gehiago taldean (943-428479) eta 943-473727 telefonoan eskuratuko duzu.

\$\$\$

MENDIA ✕ Urkiolako beste mapa bat kaleratu du Nondik argitaletxeak

Nondik argitaletxeak, Euskal Herriko mendiguneetako mapen bildumari segida emanez, Urkiolakoa kaleratu berri du. 1:40.000 eskalakoa da, eta besteak beste, Aramotz eta Orisol ere biltzen ditu.